



ZEINU-HIZKUNTZARI ETA AHOZKO
KOMUNIKAZIOARI LAGUNTZEKO
BALIABIDEEI BURUZ

E
H
E
G
O
L
G
U
F

EUSKAL HERRIKO GORREN LAGUN ETA GURASOEN
ELKARTEEN FEDERAKUNDEA

Urriaren 24an BOEk urriaren 23ko 27/2007 LEGEA argitaratu zuen. Espainiako zeinuen hizkuntzak aintzat hartzen dituen eta gorren, entzumen-urritasunen bat dutenen eta itsu-gorren ahozko komunikazioari laguntzeko baliabideak arautzen dituena.

Legea argitaratzen den egunaren biharamunean indarrean sartzen bazen ere, amaierako xedapen batek ondokoa gogorazten digu:

Bosgarren amaierako xedapena. Legearen aplikazioa. Lege honetan aurreikusitakoak pixkanaka aplikatuko dira 6. artikuluan aipatzen diren arlotan. Lege honetako 10., 11., 12., 13., 14., 19., 20., 21., 22. eta 23. artikuluetan finkatutako arauak, abenduaren 2ko 51/2003 Legearen -ahalmen urriko pertsonen aukera berdintasunari, bereizketarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa da Lege hori-, bosgarren, seigarren, zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren amaierako xedapenek jasotako epeekin eta egutegiekin bat etorritik aplikatuko dira.

Legearen aipatutako amaierako xedapen horietan, arau horien aplikazioa zenbait urtetara luzatu daitezke (17 urtekoa ere izan daiteke), Herri-Administrazioak edo Entitate pribatuak izatearen arabera.

Eta artikulua horietan bereziki aipatu egiten dira **jendearen eskura egon beharreko ondasun eta zerbitzuak (Hezkuntza, Prestakuntza eta Enplegua, Osasuna, Kultura, Kirola eta Aisia), Garraioa, Herri Administrazioekiko harremanak, Esku-hartze politiko eta Gizarte Komunikabideak, telekomunikazioak eta informazioaren gizartea**, bai zeinu-hizkuntzari, bai ahozko komunikazioari laguntzeko baliabideei dagokienez.

Laburbilduz, Legea badugu, baina egunero-egunero lan egiten jarraitu behar dugu lege hori lehenbailehen egi bihurtzeko, gure seme-alaben eta gor-komunitatearen gizarteratze osoa bermatzeko.

Familien Elkarten eta Gor Helduen Elkarten arteko baterako lana inoiz baino beharrezkoagoa dugu, Administrazioari bultzatzeko eta legea inolako murrizketarik gabe aplika dezaten lortzeko, guztioi modu berean aplikatzeko alegia.

FEVAPAS PROGRAMAK

FAMILIAK

Berriz ere aurten Elkarte Federatuek elkarrekin lan bateratua egin dute familiei arreta egiteko eta laguntzeko. Jarduteko oinarri komun batekin, **Fevapas-ek koordinatuta**, familiak honako alderdi hauetara bideratu dira:

* Era eguneratuan, objektiboan, zabalean eta zehatzean informatzea eta orientatzea.

* Maila psikologikoa eta emozionalean laguntzea.

* Familiak trebatzea eta prestatzea.

Horretarako ondokoa eskaini da: — Arreta zuzena (laguntza, informazioa, orientazioa, pizgarria, motibazioa eta kasu bakoitzaren jarraipena) — Banakako eskaeren kudeaketa — Gurasoek gurasoei laguntzea - Gurasoen Eskola (hausnarketarako eta prestakuntzarako taldeak) — Laguntza Psikologikoa — Familien Topaketak — Gizarteratzeko jarduerak — Profesionalekin aldizkako koordinazioa (otorrino, audio-protésista, logopeda, hezitzaile, etab.ekin.) — Hizketaldi Informatiboak — Sentsibilizatzeko Jarduerak.

Gainera, Fevapas pertsona gorren beste Entitate eta Federazio batzuekin koordinatu da eta zenbait forotan parte hartu du eta ordezkari du (Edeka, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseilua, Eusko Jaurlaritzako Batzorde Sektorialak...)

Honek guztia ondoko **helburu nagusia** du, familien eta eragindakoen BIZI-KALITATEA HOBETZEA.

GIZARTERATZEKO JARDUERAK

Aurten ere Fevapas-ek Gizarteratzeko Jardueren Programa zabala antolatu eta gauzatu du, entzumen-urritasunik duten pertsonen ezaugarrietara egokituta.

2007an **eguneko bi irteera** egin ditugu 7 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat:

1.- Otsailean **Aralar-Lekunberrira**

2.- Urrian **Mirandaolara**



23 pertsonak parte hartu zuten batez beste, eta honako intereseko toki hauek bisitatu zituzten:

1.- Mendikuloko kobazuloak

2.-Burdinolako museoa eta Ogiaren Baserria

Eremu horretako ingurunearekin gozatu zuten eta, lehenengo irteeran elurra egin zuten; gainera aukera horretarako bereziki antolatutako zenbait jarduera eta jolas egin zituzten.

Maiatzaren 4-6 **bitarteko asteburuan**, Fevapas-eko 27 haur eta gazte **Arabako Angosto-Sobronera** joan ziren, eta eguraldi txarra egin bazuen ere, Sobrongo Parkeak eskaintzen dituen multiabenturako jarduerekin gozatu zuten, baita alde aurretik prestatutako jarduera eta jolasekin ere; jarduera eta jolas horien bitartez talde parte-hartzaileen intereseko gaiak landu ziren.

Aipatzekoa da sukaldaritzako eta jantokiko tailerrak egin zirela, aterpeak ez baitu sukaldeko zerbitzurik, eta ondo baloratu zuten esperientzia hori.



Ekainean, Fevapas-eko **VII. Gazte Topaketa** egin zen, eta lau egun horietan, 25etik 28ra bitartean, elkarte federatuetako hamahiru gaztek **Arabako Zuhatza Irlako** ingurunearekin eta ur-jarduerekin gozatzeko aukera izan zuten. Leku hau ezin hobea da gazteekin gai oso interesgarri batzuei buruzko jarduerak gauzatzeko eta lantzeko.



2007ko kanpamenduak uztailearen leku bitartean egin ziren, **Burgoseko Pradoluengo lurraldean.**

7 eta 14 urte bitarteko 22 parte hartzailek jarduera, bisita, ibilbide eta jolas-mota askorekin gozatzeko aukera izan zuten: — multiabenturako bi egun, eskalada, arku-tiro eta espeleologia egitea— Galtzerdi-fabrika eta inprenta bat bisitatzea— bertako ingurunea ezagutzeko ibilbide batzuk— Hori guztiaz gain, bertako igerilekuetara ere joan ziren, tailer batzuk, gaualdiak, zenbait jolas etab. ere egin zituzten. Azpimarratzekoa da Fevapas-eko gazteen eta entzumen-urritasunik duten Bielorusiako 15 neska-mutilen bisita; azken hauek Lezan (Araba) ziren oporretan.

Jarduera hau orokorrean oso ondo baloratu egin dute bai parte-hartzaileek, bai monitore arduradunek.



BOLUNTARIOTZA — Monitoreak

Aurretik aipatutako jarduera horiek guztiak egiteko behar-beharrezkoa dugu Fevapas eta elkarte federatuek dituzten monitore boluntarioaren lana.

Pertsona horiekin eta horientzat, Fevapas-ek aspalditik urtero **Prestakuntza Ikastaro** bat antolatzen du, eta helburua antzinako boluntarioen prestakuntza eguneratzea eta taldean pertsona berriak sartzea litzateke.

HAURRAK ETA GAZTEAK EZAGUTU ETA ZAINDU—Alderdi Psikoebolutiboak, Alderdi Sanitarioak”

Horixe dugu **urriaren 27an eta 28an** monitoreentzat Urduñan (Bizkaia) egindako **Prestakuntza Ikastaroaren** titulua. 18 pertsonak parte hartu zuen —entzuten dutenak eta gorra, aintzatik gurekin daudenak eta berriak—. Psikologo batek eta osasuneko tekniko batek zuzendu zuten ikastaroa, eta zeinu-hizkuntzako interprete bat ere hantxe izan genuen.

Parte-hartzaileek ondo baloratu zuten jarduera hau, eta horrek Federazioari lan egiten jarraitzeko laguntzen dio.



Federazioaren funtzionamendurako eta jarraipenerako eta programa horiek guztiak finantzatzeko, urte hasieran zenbait diru-laguntza eskatu genien Eusko Jaurlaritzari, finantza-entitateri, eta Elkarte Federatuen bitartez, Lurralde bakoitzeko Foru Aldundiei.

DIRU-LAGUNTZAK

Erabakiak udan heldu ziren, eta urte amaierako azken hilabete hauetan eman dizkigute eskatutako kopuruak.

Diru-laguntzak oso berandu ematen dituztenez, eguneroko lanean eta programak gauzatzeko orduan

PERTSONA GORRENTZAKO LARRIALDIKO ZERBITZUA



DRAIN DELA HILABETE BATZUETATIK **PERTSONA GORRENTZAKO LARRIALDIKO ZERBITZUA** MARTXAN DAGO.

TELEFONO MUGIKOR BATEN EDO FAX BATEN BIDEZ **mediku, polizia edo beste batzuen LAGUNTZA** eska daiteke.

KASU BAKOITZEAN DAGOKION KODEA MARKATU EDO JARRI BEHAR DA ETA SOS DEIAK-EK ERANTZUNGO DU ETA EGOKITZAT JOTZEN DUEN LAGUNTZA BIDLIKO DU.

- Argibide gehiago zure erreferentziako Elkarteetan -

AVISO DE EMERGENCIA POR FAX

SOS Deiak Araba: 945 13 66 73
SOS Deiak Bizkaia: 944 06 33 04
SOS Deiak Gipuzkoa: 943 44 79 04

DATOS DE LA PERSONA AFECTADA

Nombre y apellidos: _____ Edad: _____
Domicilio (calle y nº de casa): _____
Localidad: _____ No.º de fax: _____
Nota: (obligatoria, ampliación de información)

Tiempo que lleva mal: _____ Marcar MINUTOS HORAS DÍAS

SANIDAD	ERTZAINZTA	EMERGENCIAS
<p>Tipo de urgencia</p> <p>Atragantamiento <input type="checkbox"/> Marcar</p> <p>Convulsiones <input type="checkbox"/></p> <p>Dolor de pecho <input type="checkbox"/></p> <p>Electrocución <input type="checkbox"/></p> <p>Dificultad al respirar <input type="checkbox"/></p>	<p>Tipo de urgencia</p> <p>Amenaza <input type="checkbox"/> Marcar</p> <p>Abuso sexual <input type="checkbox"/></p> <p>Agresión - pelea <input type="checkbox"/></p> <p>Homicidio <input type="checkbox"/></p> <p>Maltrato <input type="checkbox"/></p>	<p>Tipo de urgencia</p> <p>Accidente de tráfico <input type="checkbox"/> Marcar</p> <p>Accidente en la calle <input type="checkbox"/></p> <p>Accidente en el monte <input type="checkbox"/></p> <p>Encerrado en ascensor <input type="checkbox"/></p>

FEVAPASek ondokoetan dago.....

EDEKA: - Batzorde Betearazlea — bi bilkura- Edekak 2007an izango duen jarduera-lerroak finkatu ziren, Urteko Batzar Arrunta prestatu zen (abenduaren 14an) eta PP alderdiko euskal ordezkariak hartu genituen, horrela eskatu baitziguten.
- Batzorde Teknikoa— bilkura bat— Urritasunei buruzko agiri bat egin zen alderdi politikoei, hauteskundeak zirela-eta, aurkezteko.
- Edeka Jardunaldia - abenduaren 14a— Batzar Arrunta eta Jardunaldi Informatiboa, eta Jardunaldi horretan Estatuko Elbarrituen Ordezkarien Espainiako Batzordeko (Cermi) ordezkari batek azalduko die bertaratuei Batzordearen funtzionamendua eta Batzordean sartzearen betebeharrak, abantailak.

GIZARTE ONGIZATERAKO EUSKAL KONTSEILUA: Iaztik, zentzumen-urritasunen talde bat sortu zenetik —entzumen-urritasuna, ikusmen-urritasuna eta gor-itsuak— Fevapas Kontseilu horretan dago Once titularraren eta Euskalgorrak ordezkariaren bitartez. Gai askoren artean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Legea sortzen lagundu dugu, eta laster onestuko omen dute Lege horren aurreproiektua.

Batzorde Sektorialak: Aurrekotik bi Batzorde Sektorial sortu dira aurretik bi Plan hauek egiteko: Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa eta Mendekotasunen/Urritasunen Plana. Fevapas-ek bietan hartu du parte.

INTERESEKO GAIAK

EITB — 2007ko maiatzetik, Fevapas eta Euskal Gorrak Kulturako Sailarekin bildu zirenetik alegia, Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin Entitate Publikoarekin sinatzen duen Kontratu-Programaren edukiei buruzko informazioaren zain gaude. Kontratu-Programa horrek bien arteko konpromisoak biltzen ditu. Sailak gure eskaerak jakinaraziko ziela eta informazioa emango zigula esan zigun.

HEZKUNTZA— Maiatzean Hezkuntzako Batzordeak bilkura egin zuen (lurralde bakoitzetik hezkuntzako tekniko bat, elkarte federatu bakoitzeko ordezkari batzuk, Fevapas-eko ordezkari batzuk eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak); bilkurak ondoko gai-zerrenda zuen: 06/07 ikasturtearen garapena eta hurrengo ikasturteari buruzko proposamenak. Beste zenbait gairen artean, Batzordea urtean behin bildu behar dela erabaki zen aholkularitza emateko, jarraipena egiteko eta kontsultak egiteko. Gaur egun deialdiaren zain gaude lantzeke ditugun alderdi eta gai batzuei berriz ekiteko.

PRESTAZIO ORTOPROTESIKOAK— Laster Osasuneko Sistema Nazionalako Gizarte Zerbitzuen Zorroa eguneratuko dute eta PRESTAZIO ORTOPROTESIKOEN EDUKIA BERRIKUSIKO DUTE. Une egokia dugu audifonei eta inplante koklearrei buruzko eskariak egiteko.

Onestutako LEGEAK

2007ko GABONAK

* Abenduaren 14ko 39/2006 Legea, **Autonomia Pertsonala sustatzekoa eta mendekotasuna duten pertsonen arreta ematekoa.**— BOE, 299. zk; 06/12/15

* Urriaren 23ko 27/2007 Legea, **Espainiako zeinuen hizkuntzak aintzat hartzen dituen eta gorren, entzumen-urritasunen bat dutenen eta itsu-gorren ahozko komunikazioari laguntzeko baliabideak arautzeko dituen.**

BOE, 255. zk; 07/10/24

* **Urritasunik duten Emakumeentzako Ekintza Plana.** Ministroen Kontseiluak 2006/12/1ean onestutakoa.

*FEVAPASek
EQUIBERRI ON
opa dizue*

LAGUNTZEN DUTE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako